



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko agorrrilaren 13ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko agorrrilaren hamahiruan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, LEKUMBERRY Xantxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2024ko agorrrilaren 9

Afitxatze eguna : 2024ko agorrrilaren 9

5. ERABAKIA: HERRIAK EMATEN DITUEN EKIPAMENDU DIRULAGUNTZEN

AMORTIZAZIOA

(7.10 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du herriak ekipamendurako dirulaguntzak isurtzen ahal dizkiela erakunde pribatu edo publikoei. Zehaztu du Territoire d'Energie 64 sindikatuari egin maileguz kapitalaren itzultzea dagoeneko ekipamendurako dirulaguntzak emanez egiten dela.

Auzapezak esplikatu du ekipamendurako dirulaguntzak amortizatu behar direla (1. tomoa – M57ko aurrekontu eta kontularitza idazketak). Auzapezak proposatu du ekipamendurako dirulaguntzak 15 urteren gain amortizatzea.

Herriak ekipamendurako dirulaguntza bat ematen duen bakoitzean halako erabakirik hartu behar ez izateko, auzapezak amortizazio epeen printzipioa ezartzea proposatu du.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik,

ERABAKI DU: esleitu diren ekipamendurako dirulaguntzak 15 urteren gain amortizatuko direla.

ZEHAZTU DU: 5 000 € eta gutxiagoko dirulaguntzak urte bakarrean amortizatuko direla.

Amortizazio idazketak gastua erregistratu eta ondoko aurrekontuan idatziko direla.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 9
Balizko boz kopurua : 9
ALDE : 9
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko agorrilaren 13an,
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/08/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/08/14an.